

EZ dago Berdintasunik perspektibarik gabe



Simone de Beauvoir-ek esaten zuen: *“munduaren irudikapena, mundua bera bezala, gizonen obra da; haiek deskribatzen dute haien ikuspuntutik, eta egia absolutuarekin nahasten da”*.

Maskulinoa ez da neutroa eta bizitzaren edozein arlo azaltzen duen errealitatearen analisisa (lana, lan osasuna, arkitektura, hirigintza, ekonomia, politika, medikuntza, gizartea) gizonetzkoen perspektiba bakarrik aintzat hartuta egiten bada, neutro moduan, ez da berdintasuneko mundua.

Genero ikuspegiak, betebeharra izatez gain, pertsonen bizitza hobetzea ahalbidetzen du emakume eta gizonen bizitza eta horien arteko harremana ulertzen laguntzen duelako, dauden desberdintasunak erakusten, bai biologikoak eta baita gizarteak ezarritakoak, horiek eraldatu ahal izateko.

12. Kongresu Konfederalean, gure estatutuek “feminismoa” sartu zuten CCOOren printzipioetan, eta horrek behartzen gaitu, bai afiliazioari, bai ordezkaritza sindikalari eta baita egiturari bere osotasunean, berdintasunean aurrera egitera gure ekintzetan, sindikatu barruan zein kanpoan. Baina gainera, FSC-CCOOko IV. Kongresuko estatutu federalek behartzen gaituzte era esplizitoan genero perspektiba aplikatzera, benetakoa berdintasunean ez da nahi genuen aurrerapena eman beraz, bultzada handiagoa eman behar diogu emakumeen parte-hartze eraginkorra lortzeko, gure barne zein kanpo egituretan baita gure ekimenetan.

Aintzat hartu behar dugu, berdintasunean aurrera egiten jarraitu nahi badugu, egun ditugun eredu eta batzuk eraldatu eta egokitzea beharrezkoa dela. Aurrera egiteko beharrezkoa da egungo ereduaren eta lan metodoen zati bat aldatzea.

Gure betekizuna da genero transbertsalitatea sartzea politika sindikalaren eremu guztietan, Emakumeen Idazkaritzan laguntzarekin, ekintza positiboak sustatu eta garatu eta oztopoak ezabatu berdintasunean aurrera egiteko, horretarako egin behar duguna:

- ▶ Genero-ikuspegia aplikatzea.
- ▶ Hizkera ez-sexista erabiltzea.
- ▶ Jarduerak zuzen banatzea sexuen artean.
- ▶ Emakumeen ahaldundutza ahalbidetuko duten espazioak sustatzea.
- ▶ Emakumerik gabeko ekitaldi handietan ez parte-hartzea edo ez antolatzea.
- ▶ Bertaratzen garen ekitaldietan, ahotsa emanez, emakumeen parte-hartzea sustatzea.
- ▶ Kristalezko sabaia apurtzea eta, bereziki, zoru itsaskorra eragozte.
- ▶ Emakumeak negoziazioan sartzea.
- ▶ Emakumeek sindikatuko zuzendaritza eta koordinazio organo guztietan parte-hartzea sustatzea, bereziki atal sindikaletan.
- ▶ Zero tolerantzia. Ez da onartu behar ez bidegabekeria matxistarik, ez sexu-indarkeriarik, arina bada ere.
- ▶ Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako berdintasun-planak eta protokoloak ezagutzea eta aplikatzea.